



Alkate agurgarria:

2020ko azaroaren 12an, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak gutun bidez jakinarazi zizun Nafarroako Kirol Instalazioen Errolda eguneratzeko programa hasia zela, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Legea betez.

Era berean jakinarazi zitzaizun ezinbestez bete beharra zegoela apirilaren 20ko 38/2009 Foru Dekretua, kirol instalazio eta ekipamenduen oinarrizko betebeharrak eta segurtasun neurriak arautzen dituen.

Ikusten ari gara udalerrri batzuek ez dituztela oraindik eguneratu ez instalazioen errolda ez instalazio eta ekipamenduen segurtasun-aktak.

Oroitarazi nahi dizugu atal horiek 2021ko urtarrilaren 31 baino lehen bete behar direla ezinbestez, eta jakinarazten dizugu ezen kirol instalazioen errolda eta segurtasun-akta nahitaez beteta egon beharko direla kirol-instalazioetarako dirulaguntzak jasotzeko.

Errolda eguneratzeko, jabeak bere instalazioari dagokion sarbide-kodea eskatu beharko du hona idatziz: [ibone@gesportsl.es](mailto:ibone@gesportsl.es) edo hona deituz: 948 680966.

Jakinarazten dizugu zure udalerriko kirol-instalazio pribatuen titularrek ere egin behar dutela izapide hori

Adeitasunez,

Iruñean, 2020ko abenduaren 23an

Ramón Santesteban Úriz  
NKIren ZUZENDARIORDEA